

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

ENPLEGU, MERKATARITZA, TURISMO ETA FORU ADMINISTRAZIOAREN SAILA

354/2026 Foru Agindua, uztailaren 9koa. Karrerako funtzionarioak izendatzea, administrazio bereziko eskalako teknikarien azpieskalako erdi-mailakoteknikari, arkitekto tekniko klasean, A2 sailkapen azpitaldean karrerako funtzionario gisa sartzeko deialdian, zeina Arabako Foru Aldundiko 2022ko EPEari baitagokio

671/2024 Foru Aginduaren bidez, onespena eman zitzaien Arabako Foru Aldundian karre-rako funtzionario sartzeko 2021eko, 2022ko eta 2023ko enplegu eskaintzei dagozkien hautaketa prozesuak arautuko dituzten oinarri orokorre.

2024ko abenduaren 18ko 676/2024 foru aginduen bidez, onespena eman zitzaien Arabako Foru Aldundiko administrazio bereziko eskalako teknikarien azpieskalako erdi-mailako teknika-rien klasean (Arkitekto Teknikoa), A2 sailkapen azpitaldean, karrerako funtzionario gisa sartzeko hautaketa prozesuaren oinarri espezifikoei, enplegu publikoaren eskaintzako 2022ko deialdiei dagokienez.

Hautaketa-prozesua amaitu eta epaimahai kalifikatzaileak hura gainditu duten izangaiak izen-datzeke proposamena egin ondoren, karrerako funtzionario izendatu behar dira administrazio berezian, azpieskala teknikoan, erdi-mailako teknikaren klasean (Arkitekto Teknikoa), A taldean, A2 azpitaldean.

Diputatuen Kontseiluaren uztailaren 30eko 154/1993 Foru Dekretuaren bidez, funtzio publi-koaren arloko eskumenak ezarri ziren, eta uztailaren 29ko Foru Gobernu Kontseiluaren 29/2025 Foru Dekretuaren bidez, Enplegu, Merkataritza, Turismo eta Foru Administrazioaren Sailaren egitura organikoa eta funtzionala onetsi ziren. Horrez gain, Diputatu Nagusiaren ekainaren 30eko 152/2023 Foru Dekretuak Arabako Foru Aldundiaren sailak zehaztu zituen 2023-2027 legegintzal-dirako. Horrela, bada, dekretu horietan gutzietan xedatutakoarekin bat etorritz, hau

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Karrerako funtzionarioak izendatzea, administrazio berezian, azpieskala tek-nikoan, erdi-mailako teknikarien klasean (Arkitekto Teknikoa), A taldean, A2 azpitaldean, karre-rako funtzionario gisa sartzeko enplegu publikoaren eskaintzako 2022ko deialdia gainditu duten izangaiak, ondoren adierazten diren lanpostuei atxikita:

IZENA	KODEA	LANPOSTUA
ANA ROSA RUIZ DE EGUINO ARACAMA	1230.008	LAGUNTZA PROGRAMAK KUDEATZEKO ERDI-MAILAKO TEKNIKARIA
USUE BERAZA SADORNIL	1222.001	KATASTROKO ERDI MAILAKO TEKNIKARIA
AINARA OTXOA MARAÑÓN	1230.003	LAGUNTZA PROGRAMAK KUDEATZEKO ERDI-MAILAKO TEKNIKARIA
SARA BARREDA SOTO	1222.002	KATASTROKO ERDI MAILAKO TEKNIKARIA

Bigarrena. Izendatutako pertsonen 2026ko irailaren 1ean jabetu beharko dute esleitutako lanpostuez.

Ezarritako egunean lanpostua jabetzan hartzen ez badute, salbu eta ezinbesteko kasuetan, galdu egingo dituzte deialdiaren ondoriozko eskubideak Arabako Foru Aldundiaren funtzionario izaera eskuratzeko.

Hirugarrena. Sartu berri diren funtzionarioak adjudikatutako lanpostuei atxikitzeak behin betiko izaera izango du, eta lanpostuak hornitzeko sistemaren bidez lortutakoa izango da ondorio guztietarako.

Laugarrena. Foru agindu honen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkeztu ahal izango da bi hilabeteko epean, hura argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, Vitoria-Gasteizko Auzialdi Auzitegiko Administrazioarekiko Auzien Atalaren aurrean, edo, nahi izanez gero, berraztertze errekurtsua hilabeteko epean, ebazpena hartu duen organo berean. Hori guztia, uztailaren 13ko 29/1998 Legeak, administrazioarekiko auzibideen jurisdikzioa arautzen duenak, 46.1. artikuluan –urriaren 1eko 39/2015 Legearen, herri administrazioen administrazio prozedura erkidearenaren, 123. artikuluekin lotuta– xedatutakoarekin bat etorriz.

Vitoria-Gasteiz, 2026ko uztailaren 9a

*Lehen diputatu nagusiordea eta Enplegu, Merkataritza,
Turismo eta Foru Administrazioaren Saileko foru diputatua*
CRISTINA GONZÁLEZ CALVAR